



Aretxabaletako
Udala

ILARGI PLAZA 5ZB.BEHEAN (Zainduz) LOKALA DOAN UZTEKO ETA LOKAL HORREN ERABILERA ARAUTZEKO KONTRATUA

Aretxabaletan, 2015ko ekainaren 9an

BILDUTAKOAK

ALDE BATETIK, Ana Bolinaga anderea, Aretxabaletako Udaleko Alkate-Udalburua.

ETA BESTETIK, Azucena Cardenal izen-abizenak, 16296334Y DNI zenbakidunak

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Aretxabaletako Alkate delako, gobernu lokalaren modernizaziorako neurrien 57/2003 Legearen 21. artikulua ematen duen ahalmena baliatuz.

Bigarrenak Azucena Cardenal Garcia andreak, beraren izenean eta "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" elkartearen ordezkatuz.

Alde biek kontratu hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta,

ADIERAZTEN DUTE

- I. "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" elkartearen entitate pribatu eta irekia da, bertan edonork har dezake parte, ez dauka irabazi asmorik, eta Aretxabaletako herrian, bertako bizilagunentzat eta berdintasuna sustatzeko helburuz, ekintzak, tailerrak, bilerak eta denetarikoko ekimenak egin nahi ditu. Elkarrekin berak izango duen dinamikaz gain, Udaleko Berdintasun Sailarekin harreman zuzena eta koordinatua izateko nahia du, finean misioa, Aretxabaletan emakumeentzako bereziki, berdintasuna lantzeko espazio erreferentzial bat lantzen joatea baita.
- II. "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" elkartearen helburu nagusia da, Aretxabaletako herrian, genero berdintasuna sustatzea, bereziki emakumeen ahalduntzeari erreparatuz eta kontzientzia feminista sustatuz. Bestetik, eremu anitzetako emakumeentzat topaleku izateko bokazioa ere badauka. Adin, ideologia, kultura nahiz etnia edota ezaugarri sozial anitzetako emakumeak elkar topatzeko.
- III. "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" elkarteari Ilargi plazan, 5.en zenbakia behean dagoen lokala interesatzen zaio, emakumeen ahalduntzera bideratutako ekintzak (tailerrak, hitzaldiak, eztabaidak, solasaldiak, aldarrikapenak...) egiteko, ezaugarri ezberdinetako emakumeentzako elkargune gisa, elkartearen beraren bilerak egiteko eta behar duen materiala gordetzeko.
- IV. Aretxabaletako Udala Ilargi plazan, 5.en zenbakia behean kokatutako lokalaren jabea da. Lokala ondasun izendatuta dago eta Ondasunen Inbentario Liburuan jasota dago.
- V. Elkarrekin lana herriaren interesen alde eta irabazi asmorik gabe egiten duela ikusita, Aretxabaletako Udalaren iritziz, doan utzita lokal honi errentagarritasun soziala ateratzen zaio.



Aretxabaletako
Udala

Aurrean esandakoagatik, alde biek kontratu hau egiten dute, honako klausulekin:

KLAUSULAK

Bat.- Aretxabaletako Udalak "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista"ri elkarteari prekarioan uzten dio, eta beraz, doan, IV. aurrekarian deskribatutako lokalaren erabilera. Elkartea Azucena Cardenal Garcia andereak ordezkatzan du.

Bi.- Elkarreak lokala erabiliko du soil-soilik gizon eta emakumeen berdintasunarekin zerikusia duten ekintza eta ekimenetarako. "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista"k lokala behar bezala zaintzeko betebeharra du, egindako kalteen erantzule izango da eta hasieran zegoenetan itzuli beharko du kontratua bukatzen denean. Ezin izango du obrarik egin udalaren baimenik gabe, ezta hirugarren bati lokala laga ere.

Hiru.- "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" elkarreak antolatu nahi dituen jardueren berri eman beharko dio Aretxabaletako Udalari, urteko egitasmoa aurkeztu, alegia, Udalak berak utzitako lokalean zer antolatuko den jakiteko eta bide batez onespina emateko.

Lau.- "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" elkarreak ekintzak gauzatzeko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak eskuratzeko konpromisoa hartzen du, lana, hezkuntza, ogasuna, edo beste edozein arlori buruzkoak.

Bost.- Alde biek aitortzen diote elkarri "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" taldea irabazi asmorik gabeko erakundea dela, zuzenbide pribatukoa, eta ez dagoela Udalaren menpe. Udalak lokala utzi besterik ez du egiten eta horregatik ez du bere gain hartzen, ez zuzenean eta ez zeharka, lokalean gerta daitekeen kalte material, pertsonal edo moralik.

Sei.- "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" elkarreak antolatzen dituen ekimenetarako iragarkietan, laguntzaile gisa, udalaren logoa edo aipamena agertu beharko da.

Zazpi.- Lokala uzteko hitzarmen hau indarrrik gabe geratuko da Udalak lokala erreklamatzan duenean, hilabete aurretik "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" elkarteari jakinarazita, edo baita elkarreak lokala itzultzen duenean ere. Era berean, zuzenean geratuko da hitzarmena indargabe, hemen adierazi gabeko helburu baterako erabiltzen bada.

Zotzi.- "Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" elkarreak herritar orori, betiere planteatzen diren helburuekin bat egiten badu, ateak zabaltzen dizkiola adierazi du, elkarre irekia dela, alegia.

Bederatzi.- Lokalaren erabilera eta ordutegia malguak izango dira: astean zehar zein asteburuetan erabili ahal izango da,

Hamar.- Aretxabaletako Komite Herritar Feminista" elkarreak udalak euskararen erabilera sustatzeko onoko irizpideak betetzeko konpromisoa hartzen du:

- 16 urtetik beherakoei zuzendutako ekintza guztiak (hitzaldi, idatzi etab.) euskara hutsean izango dira, eta ahalegina egingo da helduei zuzendutakoak ere hala izan daitezen.
- Ekitaldi publikoetako ahozko komunikazioak ere euskara hutsean egingo dira ahal den guztietan. Bi hizkuntza ofizialak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, lehendabizi euskarazko mezua emanaz, eta gero gaztelerazkoa.
- Idatzizko mezuei (kartel, iragarki, esku-programa, liburuxka...) dagokienez, gutxienez elebitan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanda bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik (euskarazkoa handiago). - Edonola ere, Udal Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da argitaratu beharreko edozein testu itzuli edo zuzentzeko.



Aretxabaletako
Udala

Hamaika.- Hitzarmen hau 2015ko ekainaren bederatzian jarriko da indarrean eta bi urtetik behin sinatu beharko dute bi alderdiek.

Aurrean esandakoarekin bat datozela agertzeko, hitzarmen hau bitan sinatzen dute, helburu bakarrarekin, goian adierazitako leku eta egunean.

Azucena Cardenal Garcia
"Aretxabaletako Komite Herritar Feminista"ko
elkarteko ordezkaria.

Ana Bolinaga Uribarren
Aretxabaletako alkatea